



**PARTAIDETZA TXOSTENA, HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARIAK
APIRILAREN 14KO 96/1997 FORU DEKRETUA GARATZEKO APIRILAREN 25EAN
EMANDAKO 161/2001 FORU AGINDUA ALDATZEKO FORU AGINDUAREN
PROIEKTUARI BURUZ. 96/1997 FORU DEKRETUAREN BIDEZ, NAFARROAKO
FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE
AUTONOMOEN ZERBITZUKO LANGILEEN LANBIDE PRESTAKUNTZA ETA
HOBEKUNTZARAKO BIDEA ESKAINI ZEN, A MAILA EDO TALDEKO IRAKASLE-
LANPOSTUETAN.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua arautzen du herritarren parte-hartzea lege eta erregelamendu maila duten arauak prestatzeko prozeduran. Artikulu horren 1. apartatuak jasotzen du kontsulta publikoaren tramitea bideratuko dela, herritarren iritzia jasotzeko, eta kontsulta hori eginen dela ekimenaren testua idatzi baino lehen.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikulua j) apartatuan dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Horrez gain, k) apartatuan esan bezala, eskubidea izanen du parte hartu duen prozeduraren behin betiko emaitza publiko egiteko, eta hartutako erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeten berri eman dakiola, parte hartzeko prozesu publikoari buruzko informazioa barne. Gainera, 21. artikulua azaltzen duenez, Nafarroako Administrazio Publikoek argitara emanen dituzte prestatzen ari diren araugintzako prozedurak, tramitazioaren zein unetan dauden adierazita, baita herritarren parte-hartzearen emaitza ere, iritzia emateko aurkeztu zaizkien prozesu guztietan.

Herritarrek aldeztu aurretiko kontsultan parte hartzeko aukera izan zuten, iradokizunak edo ekarpenak aurkeztuz, 2021eko uztailaren 30etik abuztuaren 19ra bitartean. Aukera hori gauzatu ahal izateko, interesdunen eskura jarri zen helbide elektroniko hau: rjurpers@navarra.es. Parte hartzeko prozesua ekarpen batekin amaitu zen, dagokion txostenean islatu zena.

Ondoren, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 25eko 161/2001 Foru Agindua aldatzen duen Foru Aginduen proiektua idatzi ondoren, herritarrek parte hartzeko tramitea egin zen,



Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuta, 2021eko urriaren 20tik azaroaren 10era bitartean.
Aipatutako helbide elektronikoa interesdunen eskura jarri zen, eta ez zen ekarpenik jaso.

Era berean, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan azarritakoa betez, Foru Aginduaren proiektua Unibertsitateaz Kanpoko Irakasleen Mahai Sektorialean negoziatu zen 2021eko urriaren 26an. ANPE sindikatuak eskatu zuen Foru Aginduak kontuan har zezala hautagaiek espezialitate batean baino gehiagotan aurkezteko aukera. Behin betiko zirriborroan aukera hori finkatu da, baina prestakuntzarako zerbitzu berezietako izangaien zerrendetan proba bidez sartzeko aukera kendu da.

Iruñean, 2021eko azaroaren 23an.

LANGILERIAREN ARAUBIDE
JURIDIKOAREN ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

(Jatorrizkoa sinatuta)

Javier Lacarra Albizu